

Arantzazuko batzarra (1956) *

LUIS MICHELENA ELISSALT (1915-1987)

Mitx. Naiko bildurrekin agertzen naiz zuen aurrean, ta bi gauzengatik: batetik, ba, bat batean neukan edo esanda neukan itzaldiaren gaia aldatu dudalako¹ Jakiña, orretan eztuzue gauza aundirik galduko; izlaria aldatu izan balitz, oraindik, baño gaia bakarrik izan da. Eta bigarrena, ba, nere gain badaukadalako, zerbait bildur izateko gaia badaukadalako. Alegia, ni baldin banintz fabrika nagusi bat eta ari baldin banintz Euskalerriko mendiak murrizten, Euskalerria kanpoko langillez betetzen, ba ni batere bildurrik gabe agertuko nintzake zuen aurrean. Mundu guztiak daki orrelakoak eztirela euskeraren etsai. Baño euskerak, zenbaitek uste dutenez etsai bat du, eta etsai ori da linguista. Zoritxarrez ni saio orretakoa naiz.

Baño, begira, N(orbaite)k esaten zuen noizbait, alegia, gure artean deabruarekin eztugula bear bezala jokatu, alegia, mendira joan da mendira etorri, urteak joan eta urteak etorri ari gera deabruaz bestia esaten eta deabruari

* Arantzazuko bilera haren izenburu osoa hau da: “*Euskaltzaleen Bilkura Arantzazun Euskaltzaindiaren itzalpean*. 1956-ko Iraillaren 14-tik 16-ra.” Lanaren biltzaile, aurkezle eta ohargilea J. M. Satrustegi izan da. Zirriborhoa Mitxelena familiaren eskuetan dago.

¹ Iragarkian agertzen den gaia honako hau da. “Luis Michelena. *Izkuntza-monografiak nola egin*.” Arantzazun bertan hartu zukeen txostena aldatzeko erabakia. Eskuizkribua ez dago berak etxean erabili ohi zuen paperean idatzirik, eskura zegokeen iragarkiaren bost orritan baizik: egitaraua biltzar-deia eta argibideak alde batean, eta zirriborhoa bestean. Idazkera bera, jarraian etenik gabe egina dela esan genezake. Hizkuntza bestalde, mintzaera moduan tajutu da, ez idatz moldean. Izan ere, ez zuen nonbait antolatzaileei testua bidali ere. Beste hizlarien txostenak jaso ziren Euskaltzaindiaren aldizkari ofizialean, eta berea ez. Idazkariaren laburpenean honako hau adierazten da, besteak beste: “*Gero Luis Mitxelena jaunak itz egin du. Ezagutuerazita zegoan gaia utzi ta beste gai bat arturik jardundu. Jakintzaren eta estudioen alde mintzatu da. Badirudi zenbaitek uste dutenez euskerak etsai bat duela: linguista. e.a.*”

Errenteriarren testua herri-hizkuntzatik hurbilago dago hemen 1968an Arantzazun bertan hartutako erabakien ondorez sortu zen euskara batutik baino. Alde horretatik lekuko bitxi oso interesgarria da dokumentu hau. Azkenik, azpimarratzekoa da idazkian sartzen dituen ahozko saioetako etendura eta tartekari informalaren errepikapena. Hori eta barnean sumatzen den ironia-izpi fina dira inolako estalkirik gabe Mitxelenaren izaera salatzen duten ezaugarri hoberenetakoak.

ez omen diogu uzten bere alde itz egiten, beraz, zuen baimenarekin nai nuke emen zer edo zer deabruaren alde esan.

Jakiña, gu zenbait gauzak minduak gauzka. Euskara eztago zenbait aldetan guk nai gendukean bezin ongi. Eta jakiña, orren errua norbaitek izan bear du. Baño ni linguista naizen ori esan nai dudana aldetik, ba, gauza bat esan nai nuke. Aurten uda txarra izan dugu, ezta? Batzuek izan dute beintzat, ostalariak eta abar, eta kanpotik etorri diranak eta, jakiña, badakizue zerian, Igeldon, badala eguraldia aldeztu aurretik esaten duena, batzuetan ezta zuzen ateratzen baño, alegia nik eztut uste zuzen legokenik aurten Donostian egin duen eguraldiaz, ba, Igeldokoei kulpaz ezartzea edo egozteaz. Etzait iduritzen ori zuzena litzakenik.

Orrekin esan nahi dudana da au: euskera zenbait lekutan galdu baldin bada, beste zenbait lekutan urritzen ari baldin bada, zera, izkera erri bateko ala besteko izkeraren artean bereizkuntzak baldin badira, aundiak ala txikiak, errua ezta guria, guk eztitugu ez bereizkuntzak sortu, guk eztugu euskera galarazi, ezta urritu ere. Beraz, ori eztugu gure gain, ori berez gertatu dan gauza da.

Nik esan nai dudana da au: Gu gauza batekin ari gera, guk jakin nai dugu nun itz egiten zan eta galdu dan eta non ari dan urritzen, ori jakin nai dugu. Nik uste dut jakiteak, bear bada, gizon banaka bati iñoiz edo bein kalte egin diola, baño gizonari erabat edo erri bateri, jakiteak ezti beñere kalterik egin. Gauzak ezpadaude biar dan bezela, lenbiziko lana da gauzak nola dauden jakitea. Alper alperrik da guk gerok gere buruak, gere begiak itxutzea eta ez ikusi nai izatea gauzak nola dauden. Gauzak sendatu bear baldin baditugu, lenbizi jakin bear dugu nola dauden gauzak. Beraz, jakiteak eztigu kalterik ekarriko. Ori da nire iritzia.

Bestea. Badirudi zenbaitek uste duela linguistika izkuntza batuten, aztertzea edo estudiantzea alde batetik eta bestetik izkuntza baten alde jokatzeko itzez edo iskribuz, badirudi alde izugarria dagoela, eta bi bide oiek, bi lanbide oiek elkarren etsai edo kontrakoak dirala; nik eztut ala uste. Nik aitortzen dut bi lanbide oiek zearo bereziak dirala, ez ditugula beñere elkarrekin naastu bear, ori bai, baiña nik eztut uste elkarren etsai direnik.

Nik ori nola egiztatuko nuke? Ba, zuzenean ezin dezaket egin; orain okerbidetik, nik uste dut, ori ongi egiztatuko nukela. Galde dezagun gauza bat: emen zeinok jokatu dute obeto bereizkuntzaren alde, katalanak ala guk? Gu oso arroak omen gara, baño zein ere arroak geran ezta iñork esango guk aiek baño obeto jokatu dugunik. Nun saiatu dira geiago bereizkuntza, bere izkuntzak dituen bereizkuntzak ezagutzen, Kataluñian ala emen? Kataluñian. Espainian egin dan lenbiziko izkuntza atlas Kataluñian egin zuten; lenbizikoa eta orainarte bakarra. Gaztela alduan ezta oraindik orrelakorik egin edo argitaratu beintzat. Katalanak bigarrenarekin dihoaz. Katalanak sortu zuten aspaldi ta aspaldi aldizkari bat beren dialektologia, beren izkuntzaren bereizkuntzat ezagutzeko, aspaldi ta aspaldi. Guk eztugu orainarte beste orrelakorik egin eta ola eta ola-orrekin oso luzaro jarrai nezake. Ori ezta gañera gure gauza bakarrik eta emengo gauza bakarrik. Askok esaten dute ori arkeologia dala, alegia ori omen da izkuntza museo batean gorde bear dan gauza bezela jartzea. Ori ezta egia, eta ori dionak, edo jakiñaren gainean gezurra dio, edo bestela eztaki zer esaten ari dan.

Gauza jakiña da, gaur, ar dezagun gaur zabalduena dagoen izkuntza, ingelesa, ta biziena noski, eta gurea. Gure izkuntzari lan bat, lan arkeologiko

orietako bat norbaitek opa badio, ingelesari amar milla opa dizkiote, eta ori da egia. Beraz ez ditzagun gauzak bere² unetatik atera ori da nire iritzia. Nik uste dut bi gauza oriek, len esan dudan bezela, zearo bereziak egon bear dute, baño eztirela elkarren etsai, baizik elkarren laguntzaille. Esate baterako, linguista batek eztio, eta au oso ondo finkatu bear da, linguista batek eztio baliorik ematen bere gauzei; linguista batek esaten du ola edo ala bide da. Jakintza gaiak eztira ari balioarekin, eztira balioarekin ari. Beraz gauzak dira, edo ola dira edo ala dira, ori garbitu nai dute. Esan dudan bezela, jakin nai du gauzak nola diran, nola izan diran, ori da.

Baño gauza zailla da linguista bat izkuntza batekin urtetan aritzea eta izkuntza orrenganako batere joerarik ez izatea; ori arritzeko gauza da. Esate baterako, Euskalerrian jakintza aldetik zein ari izan oi dira euskera aztertzen, euskaltzaleak ala eukeraren etsaiak. Nik uste dut erantzuna guziok daukatela bere gogoan.

Bestea, esan dudan bezela ezin diteke gauza batekin ari eta gauza orrenganako batere maitasunik izan. Emen gauza bat, eztut nai iñor mintzea, baño gauza bat aitatu nai nuke: gai ontan izkuntzen bereizkuntzei dagokion gai guztian guztiok dakigu Euskalerrien badala zati bat beste guztiak baño gutxiago ezagutzen dana, beste guztiak baño, beste guztiak baño ez, baño tira, franko baño zabalagoa eta an badirala euskalki asko ezberdiñak eta oso ondo ezagutzen eztitugunak. Batzuek ia ezer eztitugula ezagutzen. Lurralde ori da Nafarroa.

Gaur alaz ta guztiz ere, seguraski, Nafarroako euskerari etzaio alde ontatik, Gipuzkoakoari ala Biazkaikoari aña arreta eman.

Ori zergatik izan dan guztiok gora bere badakigu. Baño ezta izan euskalzaletasuna Nafarroako euskalkiak estudiatzea lagundu eztuela, ezta izan euskaltzalea. Beraz nik askotan esan izan dudana da eta orrekin bukatuko det: euskaldunok, nik uste, beti alako griña bat, ba, uste dugu gauza guztiak beste edozeiñek baño obeto egin genitzakeala.

Ezkera asten, geienetan, esanaz zer egin dute emen edo an edo bestetan, ez; guk gerok badugu gere gain aski jakite eta eztugu besteren pausoen ondoren ibilli bear. Askotan gañera ez ori bakarrik, dakigularik beste guztiak emendik ibilli baldin badira guk emendik asi beintzat egiten gera, askotan ezkera iñori³ iristen, baño asi beintzat egiten gera. Eta nik esan dudana da au: guk pentsatu bear genduke beti gauzak munduan⁴ era ontara beti edo geienetan egingo zerak baldin badira, denak, emengoak, bertakoak, mundukoak, Europakoak eta Afrikakoak, gauzak onela egin baldin badituzte, guk gerok ikusten ezpaldin badugu ere zergatik egin dituzten, iduritzen bazaigu ere guk gerok obeto egingo gendukeala, ba gutxienez izan dezagun eskarmentua⁵, gure artean esaten dan bezela, ba asko balio du eta nere ustez obe genduke besteren lepotik eskarmentatzea. Beti merkeago izaten da gere lepotik egitea baño.

² *lekutatik*, zioen lehenik. Ezabatu eta *unetatik* ipiñi zion gainean.

³ *iñora*

⁴ Lehen idazkeran *kanpoan* zioen. Ezabatu eta marra gainean ipinia da *munduan*.

⁵ *eskarmentuak* dio. Azken *-k* letra ondorez jarria izan daiteke.

EUSKALTZALEEN BILKURA ARANTZAZUN
EUSKALTZAINDIAREN ITZALPEAN⁶
 1956-ko Iraillaren 14-tik 16-ra

Iru eguneko jardunak, 1) Elkar ezagutzeko. 2) Elkar berotzeko. 3) Asmoz ta jakitez jarraitzeko.

EGITARAUAK bi atal izango ditu, Euskaltzaindiaren bi xedeen araura:
 a) iker-saila, b) jagon-saila.

Iker-saillaren eginkaia

Zer garrantzi duen toki bakoitzeko mintzoez monografi bereziak antolatzeak, eta monografi oiek nola edo zer moduz egin ditezken. Toki jakin baretoko euskera modua aztertzeak zenbat parte dituan: iztegi, gramatika-legeak, joskera, aditza, fonetika, leku izenen biltzea, folklore-gaien biltzea, eta guzti ori egiteko era. Euskal idazti zaharren murriste edo soiltzeak nola egin.

Jagon saillaren eginkaia

Euskera biziari nola eutsi. Gure bizi-naia agertzeko ez ote degun zerbait entzungarri egin bear. Baserriari, gaurko egokera ontan, nola lagundu.

IZTUNAK

<i>Aita Luis VILLASANTE:</i>	1) Ongi etorri itzak eta jardunak zergatik eta zertako diren. 2) Gure eginbearrak.
<i>Jose Miguel de BARANDIARAN:</i>	Folkloreari buruz.
<i>Candido IZAGIRRE:</i>	Arantzazuko auzoko euskera moduez.
<i>Victoriano GANDIAGA:</i>	Auzoko folkloreaz.
<i>Fernando MENDIZABAL:</i>	Lardizabalen euskerari buruz.
<i>Ignacio OMAECHEBARRIA:</i>	Arantzazuko Ama Birjiñari buruzko errikanta zarrak.
<i>Aita ZABAL S.J.:</i>	Euskalerria zear "bertso berri" billa.
<i>Aita Frantzisko Mari ALTUNA S.J.:</i>	Azpeitiko euskera aztertuz
<i>Luis MITXELENA:</i>	Izkuntza-monografiak nola egin ⁷ .
<i>Antonio ARRUE:</i>	Baserriari buruz.
<i>Jose Maria LOJENDIO:</i>	Kristau Ikasbidea ta eliz itzaldiak. Ondorioak eta bukaera. Bukaeran jaialditxo bat.

HOSPEDAJES

Categoría de primera, pensión completa	70 pts.
Categoría de segunda, pensión completa	60 pts.
Categoría de tercera, pensión completa	50 pts.

⁶ Zirriborroa egiteko baliatu dituen orriak Biltzarraren iragarkiarenak dira, esan beza-la, eta hitzez hitz dator jarraian. Alkoholez egindako letra urdineko kopiak dira, eta joaten ari zaie tinta. Izenburua ez da ia ikusten.

⁷ Hizkuntza-monografi en gaia oinarritzkoa zen Biltzar honen helburuetan. Lan hori egina baldin bazuen Mitxelenak ez da oraingoz agertu bere izkribuetan. Han esandakoen bat-bateko zirriboa hizkuntzalarien aurka entzundako iritziei erantzunez egina dirudi. Bertakoen artean sumatu ote zuen giro txarra ala norbaitek helarazi zion zurrumurrua?

Nola nahi ere azken orduko zerbait zatekeen ikerlanen funtsa azaltzera bultzatu zuen arrazoia.

Fuera de la Sede del Congreso:

Hotel Aranzazu: Categoría de primera, pensión completa 70 pts.
Categoría de segunda, pensión completa 60 pts.
Categoría de tercera, pensión completa 50 pts.

Fonda Goiko Benta: 55 pts., excluidos café y copas. Teléfono 5.

Fonda Sindica: 50 pts., excluidos café y copas. Teléfono 3.

Fonda Milikua: 55 pts., excluidas las copas, incluido el café.

NOTA: todas las pensiones tienen un recargo del 15 % SERVI(CIO).

A las diez y media de la mañana del día 14 habrá un autobús especial en Oñate para recoger a los congresistas procedentes de Bilbao y San Sebastián.

LABURPENA

Arantzazuko I. Batzarrean (1956) Mitxelenak emandadako hitzaldi argitaragabearen testua dator hemen. Iragarkitzat ateratako egitarauaren atzeko bost orritan eskuz idatzirik dago eta ematekoa zen gaia baztertuz antolatu zuen hau. Bat-bateko idazkera dirudi bera mintzo zen era berean egina. Hizkuntzalarien aurkako zerbait sumatu zukeen, eta ikerleak ez duela mintzairarik aldatzen dio; ez dela beraz hizkuntzaren etsaia. Ea zer den eta nola izana den ikus nahi duela bakarrik itsu-itsuan ez ibiltzeko. Bitxia deritzaigu gaur horrelako adierazpen bat, baina garaiko egoeraren lekuko fidagarria da bestalde.

RESUMEN

Este trabajo recoge el texto inédito de la comunicación de Mitxelena al I Congreso de Aránzazu (1956). El texto está escrito a mano al reverso de cinco hojas mimeografiadas con el programa y avisos para las inscripciones. Denota un estilo espontáneo en los mismos términos en que él hablaba. Debió de observar en el ambiente alguna reticencia sobre los lingüistas, y declara que el investigador no altera el idioma, y no es un enemigo de la lengua. Investiga su naturaleza y su evolución para no andar a ciegas. Hoy puede resultar extraña una reflexión de esta naturaleza, pero no deja de ser un testimonio valioso del momento.

RESUMÉ

Ce travail recueille le texte inédit de la communication de Mitxelena au Ier Congrès d'Aranzazu (1956). Le texte est écrit à la main, sur l'envers de cinq feuilles polycopiées du programme et des avis pour les inscriptions. Il dénote un style spontané avec les mêmes termes qu'il utilisait en parlant. Il avait dû noter dans l'atmosphère, quelque réticence à propos des linguistes, et déclare que le chercheur n'altère pas la langue, et n'est pas un ennemi de la langue. Il fait des recherches sur sa nature et son évolution pour ne pas aller à l'aveuglette. Une telle réflexion peut nous paraître étrange aujourd'hui, mais elle n'en est pas moins un témoignage important de l'époque.

ABSTRACT

This study gathers the unpublished text of Mitxelena's speech at the I Aránzazu Congress (1956). The text is written on the back of five mimeo-

graphed pages containing the programme and notes on registration. The very terminology used denotes a highly spontaneous spoken style. It would appear that he observed certain reluctance towards linguists, for he declares that researchers neither affect language, nor are they its enemy. The nature and evolution of language are studied so as not to grope in the dark. Nowadays a reflection of this kind might appear strange, but not for this does it fail to be a valuable historical testimony.